

LABURREAN

GALDAKAO

Udalak emakumeendako ikastaroak antolatu dauz, lanbide aukera gehiago euki daien

«Orain arte gizonezkoenak izan diran lanbideetan اندrazkoek be sartzea izan daien; horretarako antolatu doguz ikastarook», adierazo dabe Galdakaoko Udaleko Emakume saileko arduradunek. 850 orduko ikastaroa izango da, eta urriaren 17ra arte emon ahal izango daizena, Udalaren Emakumearen gelan.

GARRAIOA

Euskotrenek ugaritu egin dau eskaintzea, Basauriko eta Durangoko jaiak dirala-eta

Bihar hasi, eta hilaren 13a arte, eta datorren asteburuan —hilaren 19 eta 20— be bai, EuskoTrenek bidaia gehiago egingo ditu, bai Basaurira, bai Durangora be, San Faustoren omenezko jaiak dirala-eta. Zaldibartik 9 trenek urtengo dabe gauero, Bilborutza, eta Durangotik beste zortzik. Kontrako ibilbidea egiteko, zortzi trenek urtengo dabe Bilbotik, eta bederatzik Durangotik.

BILBO

'Alkartasuna eta justizia, ez mendekua' leloagaz, kontzentrazinoa egingo da, gaur, Arriaga plazan

Bilboko elizbarrutiko erlijio-soen kontseiluak deiturik, kontzentrazinoa egingo dabe, gaur, Bilboko Arriaga plazan. Kontzentrazinoaren leloa 'Alkartasuna eta justizia, ez mendekua' da, eta antolatzaileek deia egin dabe, «bortxakeria gehiago gerta ez dadin». Kontzentrazinoa gaur arratsaldeko 20:00etan hasiko da, Arriaga antzokiarren parean.

Itoitzen urtegiaren kontrako solidarioek hitzaldia emongo dabe, gaur, Ekoetxean

Itoitzeko herriagaz solidario diran lagunek bideoa eta hitzaldia emongo ditue, gaur, arratsaldeko 19:30ean, Pelota kaleko 5.ean dagoan Ekoetxean. Bideo emanaldia solidarioek Europan zehar egiten diharduen ibilaldiaren barruan dago.

JAVIER DIAGO BEGOÑAKO LAGUNDIKO LEHENDAKARIA

Bilbotar gehienak abuztuaren 15ean igoten daben arren, bihar da, urriaren 11n, Begoñako Andra Mariren jai eguna, eta holan ospatzen zen lehenago. Horren jakitun, Begoñako Lagundiak barriro be ekin deutso erromesaldia jagokon egunean antolatzeari.

**«Igaz, 40.000 erromes etorri ziran; 100.000ra ailegau gura dogu»**

Mikel Basabe | BILBO

OSPAKIZUNA

«Begoñako Andra Mariren eguna biharkoa da, urriaren 11koa»

HELBURUA

«Begoñako Andra Mariri deusagun debozinoa handitzeko antolatzen dogu erromesaldia»

EGITARAUA

BIHAR, URRIAREN 11N

10:30: Umeendako jolasak: Gargantua eta uri puzgarria.

12:00: Kontzertua, Joan XXIII.a plazan

17:30: Herri kirolak Joan XXIII.a plazan.

19:45: Erromesaldirako kontzentrazinoa Arriaga plazan.

20:00: Begoñara igoerea.

20:45: Erromesaldiari harrerea, Joan XXIII.a plazan.

20:55: Ama Birjinaren ohorezko trakea.

21:00: Erromeria Joan XXIII.a plazan, Zamudioko Bertoko trikitilariekin.

igaz, 40.000 erromes etorri ziran, eta eguraldi txarra egin eban; aurtan, eguraldi ona iragarri dabe, eta 100.000ra be ailegau geintezkala pentsetan dogu.

■ Nahikoa leku egongo ete da?

Goizean umeak etorriko dira; Bizkaiko 100 ikastetxe konbidau doguz, umeak etorri daitezana, eta ama Birjinari gutuna edo marrazkia egin deioen. Eurenendako, ganera, aspaldiko tradizioa hartu dogu barriro, eta

10.000 txokolatina banatuko doguz. Beste alde batetik, Gargantua be etorriko da, eta gaztelu puzgarria be egongo da.

■ Eta nagusiendako?

Ekitaldiaren ardatza Begoñako Andra Mariri deusagun debozinoa handitzea da, eta horretarako, ahalik eta jente gehiena etorri dadila gura dogu. Herri kirolak, su artifizialak eta erromeria antolatu ditugu, eta txozna bi ipiniko ditugu, taloa eta txorizorekin, aurrekontua bardintzeko.

■ Zenbatekoa da, ba?

Guztira, 10.000.000 pezeta, baina horretatik milioi eta erdi ipinten ditugu guk. Igaz galerea izan genduan, 400.000 pezetakoa. Orain, inoiz irabazarik izan ezker, auzoko premia sozialetarako izango litzateke diru hori.

■ Zenbatek diharduzue antolaketan?

Izan, lagundian 300 lagun baino gehiago gara, baina guztiok ez gabilz honetan beharrean.